



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

## **MONUMENTO IZENDAPENA DUEN “ARTZABAL” IZENENKO EDIFIZIOAN KOKATZEN DEN USURBILGO “GURE PAKEA” JUBILATUEN LOKALEKO PORTXEA, SARRERA, TABERNA, JANGELA ETA BEHE OINEKO ZERBITZU OSAGARRIEN ERABILPEN ETA KUDEAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**

### **A) KONTRATUAREN HELBURUA**

Usurbilgo Gure Pakea jubilatuen elkartearen egoitza den Artzabal baserriko beheko oineko portxea, sarrera, taberna, jangela eta gainontzeko zerbitzu osagarrien, udal zerbituzaren ustiapena esleitzeko lehiaketa irekia arautzea, zerbitzu kontratu bidez aurrera eramango dena.

### **B) ESKEINI BEHARREKO ZERBITZUAK**

Esleipendunak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Horiek horrela, horien kalitatearen gaineko erantzukizuna izango du eta taberna baten berezko zerbitzuak eskaini ahal izango ditu, esaterako, edariak zerbitzatzea (alkoholdunak eta alkoholik gabeak) eta jangela zerbitzua.

Erabat debekatuta dago tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea, bai zuzenean, bai zeharka.

Esleipenduna, zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskainitako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokien edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.

Udalak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik edo beste edozein motatako erantzukizunik izango, esleipendunak hornitzaileei ordainketak egiten ez badizkio, hornitutako kontsumo-produktuen ondorioz toxikazioak gertatzen badira eta/edo beste edozein arrazoi dela medio.



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

### **C) ZERBITZUAREN ERABILTZAILEAK**

Zerbitzua herritar guztientzat zabalik egongo da, Gure Pakea Jubilatuen elkarteko bazkide diren ala ez kontuan izan gabe. Halere, kontuan izan behar da zerbitzuko erabiltzaile gehienak erretiratu eta pentsiodunak direla eta esleipendunak errespetuzko tratuan oinarritutako hartu-emanak izango dituela beraiekin eta jarrera lagunkorra izango duela elkarteko kideak diren jubilatuekin.

Kontratistak obligazioa izango du bere telefonoa Udalaren ezagupean jartzeko.

### **D) PUBLIZITATEA ETA DIBULGAZIOA**

Zerbitzuaren titularitatea Udalarena da, beraz, esleipenduna beharturik dago honako hauek betetzera:

- Zerbitzuaren irudiarekin ezingo da publizitaterik egin erakunde esleipendunaren interes partikularrerako, Udalaren baimenik gabe.
- Udalaren baimenarekin egin daitekeen publizitatean, beti adierazi beharko da zerbitzuaren Udal izaera.
- Edozein kasutan udal arauak errespetatuz egingo da publizitatea.

### **E) INSTALAZIO ETA MAKINERIAREN MANTENIMENDUA**

Esleipendunak egoera onean zaindu eta mantendu beharko ditu zerbitzuak dituen ondasunak eta instalazioak. Horretarako instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik.

Usurbilgo Udalak taberna erabat horniturik utziko du. Kontratuari atxikiko zaio, eranskin moduan, Udalak kontratistaren esku uzten dituen gauzen inbentarioa. Esleipendunaren kargura joango da ekipamendu guztia osatzen duten instalakuntza eta makineria guztiaren mantenimendua (etxetresna elektrikoek konponketei eta ordezkatzeei Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan xedatutakoa aplikatuko zaie). Kontratuak irauten duen epean, Udalak edozein momentutan egin ahal izango du ikuskapen bisita. Kontratuaren epea bukatzean dagoenean berriro ikuskapen bisita luzatuko da, Udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik. Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, Udalarri berauek birjartzeko diru kopurua eman beharko dio, erabilera arruntaren ondoriozko desgasteagatiko kalteak salbu.

Usurbilgo Udalaren berariazko baimen espresurik gabe ez da inolako obrarik egiterik izango ez eta ekipamenduak aldatzerik ere.

## **F) GARBIKETA**

Esleipendunak Artzabal izeneko edifizioan kokatutako Gure Pakea jubilatuen elkarteko portxea, sarrera, taberna, jangela eta behe oineko zerbitzu osagarrietako eremuak garbitu behar ditu. Erabiltzen duen tresneria, materiala, altzariak etab. beti higiene eta garbitasun baldintza onetan eduki beharko ditu. Zentzu horretan kontratista-esleipendunari dagokio garbitasun produktuak bere kargura erostea.

Horretaz gain, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduak xedaturikoa bete beharko du (ordutegi, zarata, isurketa eta osasun baldintzei daokienean).

Tabernan edo jangelaren aktibitatearen ondorioz sortu daitezkeen hondakinak horretarako Udalak prestaturiko sistema, leku eta ordutegian atera beharko ditu esleipendunak derrigorrez ondo sailkatuta. Hau egiten ezean, Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako zehapen prozedurak abiatuko dira

## **G) JENDEARI ARRETA**

Esleipendunak kontrataturiko lanak arreta osoarekin burutu behar ditu, erabiltzaileei zerbitzua bermatuz eta nazionalitate, arraza, sexu identitatea eta/edo beste edozein ezaugarrigatik diskriminatu gabe eta hauen eskubideak errespetatuaz: adierazpen askatasuna, tratu zuzena etab.

## **H) BESTELAKO ARAUAK**

- Adingabekoei alkoholdun edariak ateratzea debekaturik dago.
- Egunero eskaintzen diren otorduak eta hauen prezioa jendaurrean erakutsi beharko dira.



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

- Freskagarri eta jakien makinak jarri nahi izanez gero, zerbitzuak berak kudeatuko ditu, Udalak horretarako baimena eman ondoren.
- Txanpon-makinak eta tabako makinak ez dira onartuko tabernan.
- Jubilatuek, eskatzen dizkioten jakiak prestatu beharko ditu esleipendunak.

## I) INGURUMEN KUDEAKETA

Esleipendunak ingurumenarekin errespetuzko zerbitzu eskaintza egiteko, kontuan hartu beharko ditu naturaren eta ingurumenaren balioak lehiaketako xede diren instalazioetan, batez ere hondakinen atez ateko bilketa eta energi kontsumoen arrazionalizazioari dagokionez.

## J) ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Zerbitzua honako gutxieneko ordutegian eman beharko da, ordutegi hau eskaintzan hobetu daitekeelarik (beti ere, legezko irekiera ordutegia errespetatuz):

**Urte osoan:** goizeko 9etatik gaueko 10ak arte (jendea tabernan baldin badago beranduago itxi ahal izango da betiere, legezko mugen barruan).

**Ostirala, larunbata, igandea eta jaiegun eta bezperetan:** goizeko 10etatik gaueko ordubatera arte.

Gehienez ere, astean egun bat izango da jai eguna, egun hori Udala eta jubilatuek elkartearen artean adostu eta zehaztuko da. Kontratatistak zerbitzua itxi ahal izango du, 22 lanegun gehienez, Gabonetan edo auzoko jaiak ospatzen direnean izan ezik. Kontrata indarrean dagoen bitartean, itxialdi egutegia jubilatuen elkarteari eta udalari jakinarazi beharko zaio, azken honek baimendu dezan.

Usurbilen,

Ordezko Alkateak,  
Xabier Arregi Iparragirre

Nire aurrean  
Idazkariak,  
Garazi Etxeberria San Miguel



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

## I. ERANSKINA

### JUBILATUEI APLIKATU BEHARREKO PREZIOEN ZERRENDA

<b>EDARIA</b>	<b>PREZIOA</b>
Kafe hutsa, ebakia, deskafeinatu txikia..	0,90 €
Kafesnea, deskafeinatu handia	1,00 €
Kafea ttanttarekin	1,20 €
Kafesnea ttanttarekin	1,30 €
Esnea	0,90 €
Cola Cao	1,10 €
Infusio berezia	1,40 €
Infusioa esnearekin	1,50 €
Freskagarriak	1,40 €
Zukuak	1,40 €
Ura, botilla txikia	0,80 €
Ura, botilla handia	1,40 €
Ura gasarekin	0,80 €
Mosto txikia	0,40 €
Mosto handia	0,80 €
Bitter Kas	1,40 €
Bitter Cinzano	1,40 €
Vermouth	1,40 €
Marianitoa	1,20 €
Zuritoa	0,80 €
Kaña	1,40 €
Lejia erdia	1,40 €
Lejia osoa	2,00 €
Kaña handia	2,00 €
Kalimotxo erdia	1,40 €
Kalimotxo osoa	2,00 €
Ardo arrunta	0,40 €



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

Urteko ardoa	0,80 €
Ardo ondua	1,20 €
Txakolina	1,20 €
Ardo arrunta botila	3,00 €
Urteko ardo botila	4,50 €
Ardo ondua botila	9,50 €
Ardo gorri/zuri berezia botila	4,50 €
Txakoli botila	9,50 €
Sagardo botila	3,00 €
Cava botila	9,50 €
Cava Benjamin botila	3,20 €
Patxaran kopa	2,00 €
Orujo kopa	2,00 €
Anis kopa	2,00 €
Soberano kopa	2,00 €
Magno kopa	2,50 €
Cardhu kopa	6,00 €
Baileys kopa	3,00 €
Whisky kopa	3,00 €
Ginebra kopa	2,20 €
Konbinatu arrunta	4,00 €
Konbinatu berezia	5,00 €



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

## II. ERANSKINA INBENTARIOA

### SUKALDEA

Erdoilezinezko apala IBARGOIEN

CIAL HOSTELERA:

Lainox sukaldea CG74FPS

FRY-TOP Lainox BG72GLC

Kafea egotzeko Gailua K.6 D.A.

Faema kafetera E/98-A2 Presid

Erdoilezinezko mahaia AISI-304 210eko azpi baldarekin argiarekin, peto frontala 1590 x 600 x 850 mm. Stantea Franke ET-1643

Soporte Franke Mural 1000 x 32 neurrikoa

Estantea Franke EM-1400 x 45 neurrikoa

Corego sukaldea CC-310-SGG

Estraktorea 2200 x 750

SAMMIN-F-10 Frrejigailua

SAMMIC F-8 Frejigailua Erdoilezinezkoa 6 litroko kapazitatea 3.285 W potentzia 230 V, 270 X 360 X 420 mmkoa

Edalontzien garbigailua SAMMIC SL-19 ,edalontzi,taza,kubierto,plater e.a.

Kafegailuarentzat altzaria kontrastradorekoa, erdoilezinezko 18/8 AISI 304 4100 x 600x 1050.

ICEMATIC NX-35 W Gela fabrikatzeko gailua 463 x cianco kaxoi borrarorekin , 2 kaxoi

Altzaria 2 ate abatibleak eta bi tarteko gela fabrikatzeko.1150 x 600 x 850 tartean baldarekin



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

Bajilla garbitzeko gailua SAMMIC SL-350 eta lanerako altzaria 700 x 600 x 850 mm bi nibeletan egina.

Garbitzeko mahaia erdoilezinezkoa 18/8 AISI 304 bi fregagailuekin bata 600 x 500 x 300 mmkoa eta bestea sanitarioa 400 x 400 x 200 mmkoa

Gas Sukaldea GAMA SNACK CG-310 SGB 3 suekin , GN-1! Labearekin , grill elektrikoa , 2100 potentzia. Neurriak 12790 x 585 x 850mm

Lanerako mahaia AISI 304 700 x 600 x 850 mmkoa

LUFRI AFE-13 Frigorifikoa erdoilezinezkoa 1300 x 670 x 2030 mmkoa

LIEBHERR GG-5260 modeloko erdoilezinezko kongelagailua 750 x 760 mmkoa 1864 mm altuera.

## **KOMUNAK**

1 ispilu txiki bat, komun bakoitzerako bat

1 Ispilua komunetako sarrerako

## **BEHE OINA**

### **Jangela**

1 telebista panasonic mod. txp-42c3e

12 mahai 90 x 90 neurrikoak manpel .

44 aulki grisez tapizatuak ( 4 gora eraman ziren eta beig kolorez tapizatu ziren)manpel.

1 armairua edalontzi, zapi eta abar uzteko manpel

6 taburete 110 mod. manpel

gamecho y errandonea:

110 plater sakon harmony blanc 27zm

90 plater sakon harmony blanc 24 zm





Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

90 plater sakon harmony blanc 20,2 zm  
80 plater ogiarentzat harmony blanc 16,5 zm  
2 plater pizza marina blanc 34,3 zm  
10 entsaladera luze marina blanc 34,3 zm  
7 entsaladera luze marina blanc 40 zm  
5 entsaladera luze marina blanc 40 zm  
36 entsaladera tens arcade 12 zm  
36 ardo kopa cabernet 16 cl  
2 pitxar urarentzat 130 cl  
72 goilara erdoilgaitzak  
84 sardeska erdoilgaitzak  
90 labana zerradun txuletarentzat  
53 sardeska txiki erdoilgaitzak  
69 postrearentzat mon. erdoilgaitzak  
141 goilara moka erdoilgaitzak  
2 burruntzali erdoilgaitzak spa  
2 esne-pitxar erdoilgaitzak 100 cl  
10 filtro teterentzat erdoilgaitzak 23 cl  
4 izotz-pintzak erdoilgaitzak 18.5 cz  
1 pintza pastelentzat erdoilgaitzak 18 cz  
2 izozkiarentzat goilara haundi erdoilgaitzak 50 m/m  
1 izozkiarentzat goilara malgukidun haundia 60 mm  
4 txanpain kubo 2 botella latina  
3 intxaur-hauskailu kromatu estanpatuak  
2 plater euskarri erdolgeitz boj 10 plater  
204 sagardo edalontzi Astur  
48 edalontzi shetland 25 cl bajo  
12 kopa napoleón 30 cl arcoroc  
12 ardo-katagailu 8 cl luminarc  
24 edalontzi islande 30 cl whisky bajo luminarc  
6 edalontzi tubo 180 mm luminarc  
36 edalontzi islande 6 cl. licor luminarc  
12 edalontzi duke 20 cl. durobor



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

- 1 irabiagailu goilara feria
- 1 freskagarrientzako goilara
- 4 tetera iris cristal 200 ml
- 12 ogi-otar rattan rectangular 23x15x7 zm
- 1 entsaladera melamina orlegia
- 1 azeituna-ontzia erdoilgaitzak 7,5 zm pala polikarbonato 170 grs.
- 15 bandeja habana baby 32 x 15 zm
- 1 zentrifugatzaile erdoilgaitza, suprem
- 1 plaka-mozte polietilenoa 50 x30 x 2cm blanca
- 1 zartaia premier alum ansiad 24 zm (3mm)
- 1 zartaia premier alum ansiad 28 zm (3 mm)
- 2 zopa-ontzia tarrasa erdoilgaitza 24 zm
- 12 buztin kazola 14 cm
- 4 tetera kristalezko 200 ml
- 2 espatula plantxarentzat triangular 12 zm
- 1 suhatza haragiarentzat
- 1 sagarrei hazik kentzeko gailua
- 1 arrautzak mozteko gailua aluminiozkoa
- 1 patata molde bikoitza red 20/25
- 1 birringailu lodia
- 1 embudoa plastikozkoa 12 zm
- 1 egurrezko arrabola 60 x 6 zm
- 2 lata-iririkigailua erdoilgaitza 1 tximeleta lata-iririkigailua
- 1 barra zintzilikagailua 6 gantxo 40 zm
- 1 barra zintzilikagailua 12 gantxo 100 zm
- 1 oliontzi erdoilgaitza 0,5 lts
- 1 oliontzi erdoilgaitza 22 zm malla 25
- 1 oliontzi erdoilgaitza 26 zm malla 25
- 5 oliontzi erdoilgaitza (6 piezadun jokoa)
- 1 oliba oliontzi erdoilgaitza egurrezko zuloarekin 7 zm
- 2 labain tipulentzat "gemelos" 26 zm
- 1 xerrak egiteko labaina 18 zm "gemelos"
- 2 ogi-labain zerradun 22 zm



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

- 1 hezurak kentzeko labaina 13 zm horia
- 1 arraiarentzako matxetea 31 zm errefortzuarekin
- 1 arrain-ezkatak kentzeko gailua
- 2 puntilla 9 zm/beltza
- 2 labain imanarekin 50 zm

### **Kafetegian**

- 6 taburete luze manpel
- kortinajea kaixo
- mostradorea cial hostelera
- mostradore barrua erdoilgaitza 18/8 aisi 304 2 botilero frigorifikoekin 2000 x 1500 mmkoak
- mostradoreko iturriak setalde
- jangela zatitzeko 4 apal gaztainezkoak barnizatuak ibargoien
- mostradore barruko zoruan tableroa poste eta altzairuen arabera.ibargoien
- haritz tabloiak erreondo egur zerra
- tpv taktila
- ticket-a termikoarekin funtzionatudo duen inpresora
- diruarentzat kaxoia
- tpv neron lizentzia.guztia antonio benito
- 6 altaboz bose 201 120 w
- 1 amplifikadorea hi-fi teac ar610ç1 altabozak bose 201 120 w
- 1 botilero erdoilgaitza 2000 eta de 2800 luzera